

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko urriaren 24a. IX. urtea. 2.421. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Jon Irazuren lesioaren bilakaerak erabakiko du aizkora apustua

Zalduak luzatu zion desafioa zizurkildarrari; onartu du, baina arazoa du behatz batean ◯7

Uzturrera igota hasiko dituzte Larramendiko jaiak

Bihar hasiko dituzte Tolosako auzoko festak; igandera arte hamaika ekitaldi izango dituzte ◯2

Gipuzkoako pentsiodunek urteroko ibilbidea egingo dute Tolosan

600 bat adineko pertsona elkartuko dira igandean; 8 kilometro egingo dituzte ◯3

Herritarrak dantzan ariko dira larunbatean Bidaniko plazan

'Dantza zati bat' ekimenean parte hartuko dute 11:00etatik aurrera ◯6



→ **Denboran atzera, aho soinuei esker.** Koldo Jauregi larrauldarrak (irudian aho soinu bat eskuan duela) aho soinuen etxeko bilduma txukundu eta erakusketan egin du. Larraulgo museo etnografikoan egingo da urte bukaerara arte. ◯4



SOS Arrazakeriako Anaitze Agirre eta Kristina Morales, Tolosako Migrazio teknikaria. I. URKIZU

Tolosarrak eta atzerritarrak gerturatzeko egitasmoa, Tolosan ere martxan

Europa mailan 2004tik egiten duten Bizilagunak proiektua egingo dute Tolosan; mahaiaren bueltan biltzea da gakoa ◯3

150 lagunek parte hartuko dute Larramendiko danborradan

Bihar hasiko dira auzoko jaiak, eta egunik nabarmenenak larunbata eta igandea izango dira

Itzea Urkizu

Aurten berreskuratuko dituzten Larramendi auzoko jaietan, haur eta helduen danborrada izango da jarduerarik arrakastatsuenetakoa, 150 lagun inguruk eman baitute jada, izena.

Larunbatean izango da, 18:00etan, eta dagoeneko egin dute lehen entsegua. Parte hartu behar dutenek, auzoko jaietarako egin duten zapia eskuratu beharko dute.

Raid lasterketa ere aipatzekoa da, antolatzaileek herritarren parte hartzea sustatu nahi baitute. Sei kilometrotako ibilbideak eta ginkanak osatuko dute proba, eta jai batzordeko kideek proba ez dela lehiakorra izango nabarmendu dute: «Helburua ondo pasatzea da». Probaren amaieran hamaiketako banatuko dute.

Parte hartzearekin jarraituz, patata tortilla lehiaketa ere antolatuko dute igandeko, eta aipatzekoa da, norberak bere osagaiak eraman beharko dituela, tortilla bertan prestatzeko.

Larramendiko jaien sinbolo gisa txapela erraldoia jarriko dute ostiraleko txupinazoan, eta igande iluntzean erreko dute txapela, jaien amaierarekin bat egingo da.

• tolosa@hitza.info



Pasa den ostiralean egin zuten lehen entsegua, auzoan bertan. HITZA

↓ Egitaraua

URRIA 25, OSTEGUNA

- 09:00. Mendi txangoa Uzturrera.
- 12:00. Hamaiketako Plan B-n.
- 22:00. Zinea aire librean izango da: *Sua* filma.
- 00:00-03:00. Karaokea.

URRIAK 26, OSTIRALA

- 17:00. Txokolate jatea.
- 18:00. Jaietako emango die txupinazoak. Trikitilariak eta buruhandiak izango dira.

- 20:00. Pintxo poteoa.
- 22:00. Zezen suzkoa.
- 23:00. Kontzertuak: Atila y los Unos eta Gargantas Desgarradak taldeak.

URRIAK 27, LARUNBATA

- 09:00. Diana Tolosako Dulzaineroen eskutik.
- 10:00. Raid lasterketa.
- 10:00. Gazteentzako tailerrik: skate, graffiti eta apaingarriak.
- 14:00. Auzo bazkaria. La Jara

- elkartean prestatuko dute.
- 15:30. Haur jolasak.
- 18:00. Danborrada.
- 20:00. Pintxo poteoa.
- 23:00. Kontzertuak: The Romanticos eta Desordutan taldeak.

URRIAK 28, IGANDEA

- 09:00. Diana Udal Txistulari Bandaren eskutik.
- 10:00. Toka txapelketa.
- 12:00. Lehiaketa gastronomikoa: Patata tortilla lehiaketa.
- 12:00. La Jara elkarteko kideek Extremadurako produktuz osatutako postua jarriko dute.
- 14:00. Zahagi ardoa bazkaltzeko. Norberak bere bazkaria eraman beharko du.
- 15:00. Ereite elkarrean eskutik, munduko postrean lehiaketa egingo dute.
- 15:30. Mus txapelketa eta haur jolasak.
- 18:00. Sagardo dastatzea eta bertso poteoa.
- 20:00. Jaien amaiera.

→ Laburrak

Tolosako Udala zabalik izango da bihar

GIZARTEA › Bihar, urriak 25, jai egun ofiziala izango da Euskal Autonomi Erkidegoko lan egutegian. Tolosako Udalak, ordea, iaiz hartutako erabakiarekin jarraituz, atek zabalik izango ditu. Ondorioz, ohiko moduan eskainiko ditu dagozkion zerbitzuak.

Cecilia G. de Guilarteren liburu eta dokumentala

GIZARTEA › Gaur, 19:30ean, Cecilia G. de Guilarteren inguruko *Un barco cargado de...* liburu eta dokumentalaren aurkezpena izango da, kultur etxean. Bertan parte hartuko dute Ibai Iriarte Tolosako Alkateak, Ana Mary Ruiz García Cecilia G. de Guilarteren alabak, Jose Angel Ascunze Hamaika Bide Elkarteko zuzendariak, Manuel Aznar Soler UAB-ko GEXEL-eko zuzendariak eta Mónica Jato dokumentalaren egileak.

Gazteentzako mendi irteera, Alpinorekin

KIROLA › Alpino Uzturre elkarrekin gaztetxoentzako mendi irteera antolatu du biharko. Txangoa Roitegin mendatean hasiko da, eta Egileorren bukatuko dute. Tartearen, Santa Elena mendia (1.110 m.) igoko dute. 09:00etan San Frantziskotik irtengo dira. Helduen 10 euro ordaindu beharko dute, eta gaztetxoek 5 euro. Informazio gehiago eta izen-ematea: alpinouzturre@hotmail.com-en edo 665 74 82 99 telefonoan.

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKAINTZAK

Gidaria. B gida baimenetik hasita, dokumentazio publikoa banatzeko langile bila gabilta. Interesatuak, deitu 654 05 1778 telefono zenbakira.

Mantenerako pertsonala. Obra publiko eta zerbitzu orokorretarako langile bila gabilta. Interesatuak, deitu 654 05 1778 telefono zenbakira.

Musikaz eta pinturaz aldi berean gozatu ahal izango da Topic zentroan

Joan Baixas artistak 'Música Pintada' emanaldia aurkeztuko du ostiralean eta larunbatean

I. Urkizu

Música pintada ikuskizunaren bidez, haurtzaroko mundua gogora ekarriko du Joan Baixasek; ostiralean Eskola Kampainan eskainiko du, eta larunbatean, berriz, herritar guztiei zabalik izango da ikuskizuna.

Musikarekin batera, zipriritindu, margotu, marraztu eta zirri-marratu egingo du Baixasek, eta haurtzarora bidaia moduko bat izango da: udako jokoak, gau festak, amonaren ipuinak, *Loti Ederra*, *Barbantxo*, *Maitagarrien lorategia* eta *Ederra eta piztia*.

Margolari inpresionistek argi eta koloreen efektuekin jolas egiten zuten, bizitzako sentipenak adierazteko: paisajeak, uneak nahiz pertsonak. Modu horretara, XIX. mendeko arte-hizkuntza sentzuala sortu zuten.

Bide beretik, Topic zentroko arduradunek Maurice Ravel eta Claude Debussy musikariak ere gogora ekarri dituzte, «notak margolarien pintzel pasaldiak balira bezala erabiltzen baitzituzten». Ekialdeko doinuez eta haurren munduaz maitemindu ziren, eta hau guztia musika tresnetera eraman zuten, musika inpresionista sortuz.

Música pintada ikuskizuna lau urtetik gorakoei zuzendua da, eta larunbatean, 18:30ean ikusi ahal izango da Topic zentroan. Hurrek 4 euro ordainduko dute, eta helduek, berriz, 7 euro.

• tolosa@hitza.info



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Anaïtze Agirre eta Kristina Morales, Antxon Bandres Bidaia-aren Txokoa, egitasmoa aurkezten. I. URKIZU

Tolosarrak eta atzerritarak mahaiaren bueltan bilduko dira elkar ezagutzeko

Aurreiritziak desegiteko helburuz antolatu dute egitasmoa datorren azaroaren 18rako

Itzea Urkizu

Atzerritarren eta bertakoen arteko harreman sareak sortzeko helburuz, Europan aspalditik egiten duten Bizilagunak egitasmoa martxan jarriko dute Tolosan eta Gipuzkoa osoan, datorren azaroaren 18an. Mahaiaren bueltan bazkatzeko elkartuko dira parte hartzen duten familiak.

Munduko kultura gehienetan janariak eta mahai inguruan elkartzeak berebiziko garrantzia duela eta, integrazioa sustatzeko bide egokia iruditu zaie antolatzailerik: «Aldamenean gaude, baina ez gara erlaziozatzen, askotan ez dakigulako nola egin, zein lekutan...» azaldu zuen SOS Arrazakeriako Anaïtze Agirrek.

Horrela beraz, Tolosan jada hainbat familiak izena eman dute egitasmoan parte hartzeko. Agirrek argi utzi zuen, «era eta sexu guztietako familiek» parte har dezaketela: «Familia batek edo norbanako batek parte har dezake. Eta familia esaten dugunean, zentzurik zabalenean ari gara, era eta sexu guztietakoek parte har baitezakete». Horrela beraz, ama ezkongabeak, emakume bi-

koteak, gizonezkoenak, gizon-emakumeen bikoteak, seme-alabekin edo gabe bizi diren bikoteak, aiton-amonak eta abar luze bat aipatu zituen SOS Arrazakeriako ordezkariak.

Bada, ordea, kultur aniztasunari bultzada emango dion proiektu honetan parte hartzeko bestelako modurik: dinamizatzaile gisa. Dinamizatzaile izan nahi duenari, bi familia esleituiko dizkiote; bertakoa bata eta atzerritarra bestea. Bere ardura izango da familia bakoitzarekin bazkariaren aurretik harremanetan jarzea, eta bazkariaren egunean aurkezpen lanak egingo ditu; lehen kontaktua erraztuko du, beraz, dinamizatzaileak.

Elkar ezagutzeko bide berriak
Gipuzkoan 112 nazionalitate baino gehiagotako jendea bizi da, eta ondorioz, 100 hizkuntza inguru hitz egiten dira. «Mundua gure etxe atarian dago, eta ez dugu ezagutzen», azaldu zuen Tolosaldea Garatzeneko migrazio teknikari Kristina Moralesek.

Horrela beraz, eta norberaren etxeko atean irekitzearena «oso simbolikoa» denez, azaroaren 18a egun berezia izango da. «Oso interesgarria da, askotan kulturen arteko desberdintasunez gehiago hitz egiten baitugu, batzen gaituenaz baino. Gainera, kanpoko tradizio eta kulturak ezagutzeko bidaiazteko joera dugu, eta ez gara jabetzen eskualdean bertan

dugun aniztasunaz», nabarmendu zuen Kristina Morales Migrazio teknikariak

Mahaiaren inguruan elkartzearen egitasmoa ez dute Tolosan bakarrik egingo; datorren azaroaren 18an, 14:00etan, Europako beste zortzi herrialdeetan ere gauza bera egingen ariko dira hainbat familia.

Bizilagunak proiektua Pragan (Txekiar Errepublika) antolatu

2004az geroztik martxan da proiektua Europan, eta arrakasta handia izan du

zuten lehenengoz, 2004. urtean, eta hasiera batean jarritako helburuak ongi bete dituzte, bazkarietan sortutako harremanen erdiak sendotu egin baitira. Pragako proiektuaren arrakasta ikusita, beraz, Txekiar Errepublikan bertan, Belgikan, Hungarian, Italian, Maltan, Eslovakian, Espainian eta Euskal Herrian aldi berean gauza bera egingo dute, ingelesez Next Door Family (*alboko ateko familia*) deritzon egitasmoan.

Proiektuan parte hartu nahi duen edonor garaiz da oraindik, eta bi bide erabil ditzake. Batetik, 943 32 18 11 telefonora dei daiteke, eta, bestetik, info@mugak.org helbide elektronikora ere idatz daiteke. Azkenik, www.nextdoorfamily.eu helbidean ere informa-

600 pentsiodunen biltoki izango da Tolosa, igandean

Zortzi kilometroko bidea burutu eta gero, bazkaria egingo dute Zerkausian, Gipuzkoa osoko pentsiodunek

I. Urkizu

Urtero antolatzen du, Gipuzkoako Pentsiodunen Elkarteak, adinako pertsonen ibilaldia; aurtengoa Tolosan izango da, igandean bertan. 10:00etan elkartuko dira Gipuzkoa osotik etorritako pentsiodunak Trianguloan, eta gero hasiko dute ibilbidea.

Ibilaldiak amaiera emango die, Tolosako Harizpe Erretirodunen Elkartearen 25. urteurrena ospatzeko jardueri. Izan ere, aste osoan zeharrerako hainbat jardura antolatu dituzte Tolosako pentsiodunek. Donostiara txangoa egin dute jada; Gesaltza Añanara (Araba) eta Gasteizera egun pasa egingo dute, hiriko katedral berria bisitatzu; lehiaketa gastronomikoak antolatu dituzte, eta baita mus txapelketak eta antzekoak ere.

Igandeko ibilaldiaren aurkezpenean, Harizpe erretirodunen elkarteko lehendakaria Angel Martinez eta Gipuzkoako Pentsiodunen elkarteko lehendakaria Jose Riviere izan ziren, eta eurekin batera, Ibai Iriarte alkatea ere bertan izan zen: pentsiodunekin batera parte hartuko du azken honek ere.

Antolatzaileek, «hirugarren adina bizirik dagoela» ikusarazi nahi dute, eta urtean zehar lan handia egiten dutela hamaika harduera antolatuz, eta herrien arteko harremana sustatuz.

Gipuzkoako Pentsiodunen Elkarteak antolatuko duen 22. martxa izango da igandekoa, eta ardu-

radunek azaldu dutenez, 37.000 pentsiodun dira, guztira, Gipuzkoan: «Argi dago guztiok ezin dugula etorri, eta eskualde bakoitzeko ordezkari batzuk izango gara Tolosan». Guztira, beraz, 600 lagun espero dituzte Harizpeko ordezkariak. Arduradunek azaldu dutenez, ahalik eta ibilbiderik laiena osatzen saiatu dira, eta zatirik zailena Amarotz auzotik San Blasera igoera izango da. Horrela, beraz, hauxe izango da zortzi kilo-

Zortzi kilometro inguruko ibilbidea osatu dute Tolosan barrena

Zerkausian bazkaria antolatu dute, guztiek ibilaldia amaitzen dutenerako

metro inguruko zirkuitoa: Trianguloa plaza- San Frantzisko pasealekua- Iurreko zubi berria- Iurreamendi pasealekua- Usabal kiroldegia- Usabalo industriagunea- Amarotz auzoa- San Blas Izaskun auzoa- Zabalarreta- Igarondo- Zumardiaundia- Zumardi Txikia- Arramele- Larramendi auzoa- Arkate- Gorriti plaza- Pablo Gorosabel kalea- Euskal Herria plaza- Uzturre zentroa eta San Frantzisko pasealekua. Egingo dute Zerkausian.

Gainera, Jose Riviere Gipuzkoako Pentsiodunen Elkarteko lehendakariak, argi utzi nahi izan du «ibilaldi hau ez dela lehia bat, eta ibilbideaz gozatu behar da». Honen harira, kontrol guneak parte hartzaile kopurua kontrolpean izateko jartzen dituztela argitu du.

• tolosa@hitza.info



Ibai Iriarte, Angel Martinez eta Jose Riviere aurkezpenean. I. URKIZU

Aho soinuaren mende bateko ibilbidea ikusteko aukera, Larraulen

Koldo Jauregik bere aho soinuaren bilduman jarri du ikusgai urte bukaerara arte, museo etnografikoan



Koldo Jauregi larrauldarra, bildumaren jabea, eskuan Alemanian egindako aho soinu bat duela, Larraulgo museo etnografikoan. A. IMAZ

Asier Imaz Larraul

Koldo Jauregik balio handiko erakusketa osatu du Larraulgo museo etnografikoan; sentimenduz beterikoa. Mende bateko historia bildu du Jauregi larrauldarrek: 100 aho soinu, 100 urte.

Larraulgo museoa hileko lehen igandeetan zabaltzen dute, baina bertara joan nahi duenak, edozein egunetan, aurrez hitzordua jartzeko aukera izango du, 688 80 36 08 telefono zenbakira deituta. Koldo Jauregiren esanetan, mundu guztiko aho soinuak urte amaiera arte egongo dira ikusgai. Bisitarietara azalpenak emateko prest dagoela dio larrauldarrek, beti ere, lanean ez baldin badago.

Xarmaz beteriko bilduma


Koldo Jauregi 16 urterekin sartu zen aho soinuaren munduan: «Gu baserrian ibiltzen ginen lanean, eta ez nuen musikarekin loturirik. Horietako batean, ama zenarekin, Donostiara joan eta ez dakit nola aho soinuarekin itzuli nintzen. Inork erakutsi gabe hasi nintzen jotzen». Ondoren, lana eta soldaduska etorri ziren, eta aho soinua soldaduskara eraman zuen arren, ez ziotela jotzen uzten gogoratzen du: «20-25 urte egon nintzen jo gabe, eta duela 15 inguru, zaletasun moduan, berriro heldu nion».

Gaztetako oihuturara hura berreskuratzearekin batera, aho soinuak biltzen hasi zen larrauldarra, han eta hemen, azoketan, eta merkatu berezietan. Bilduma gero eta handiagoa izateaz gain, aberatsa zen: «Munduko toki askotako aho soinuak bildu nituen, nahiz eta gehienak alemaniarak izan. Hau ikusita, duela bi urte inguru, erakusketa bat jartzeko ideia sortu zitzaidan». Esan eta egin, garbiketa eta txukunketa lanetan jarri zen buru belarri Jauregi. Barrutik aho soinua eta esku soinua edo trikitixa antzekoak direla dio larrauldarrek: «Sistema antzekoa dute; bat ahoarekin eragiten den bitartean, bestea hauspoarekin dabil».

Erakusketa 100 aho soinu bildu ditu Koldo Jauregik, baina berezitasun batekin. Larrauldarrek honela azaltzen du beretzat xarma non dagoen: «Beste horrenbeste urtetakoak dira. Mende bateko bizia duten aho soinuak ere lortu nituen, eta ezaugarri hori eman nahi izan diot erakusketari. Historia gehiago dute horrela, eta niretzat, baita esanahi handiagoa ere. Gaur egun, 100 aho soinu desberdin lortzea ez da zaila; dendarra joan eta eskatzea besterik ez da. Horrek, ordea, niretzat ez zuen graziarik».



Ehun aho soinuaren bilduma jarri du ikusgai Jauregik Larraulen. A. IMAZ



Koldo Jauregi 16 urterekin hasi zen aho soinua jotzen. A. IMAZ

JAZZPANA!
URRIAK 26 eta 27
EROKHA-HUTERBELTZ-LIZABE-HO HIRE LIZABE-DJ BUBU
LIZABE
QUARTO DE ROSA-SANJESON CITY BLUES-SIGOTI
BELAZO-WILHELM AND THE DANCING ARCHERS
DRITS-ALIMENT-ESTEROTYPO-DEKART SJ
MATE LIZABE, BARRIO DE, MIRANZI BIZIA, JAZZPANA/EROKHA 2012

maroko
IKUSI koloreak
BIZI kultura
IKASI argazkilaritza
www.mauka.eu
laster...
ADI!
Plaza mugatuak
15 pertsona bakarrik

Transgenikoak



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Telebista, irrati, aldizkari eta egunkarietan, behin eta berriz ari zaizkigu elikadura osasuntsu bat izatearen garrantziak hitz egiten. Urtean behin gutxienez odol analisi famatuak egiten ditugu eta koitadua analisi hauek izar bat ateratzen zaiona!

Nik uste, herriko tabernariak nabari behar dutela analisi bolar osteko bezeroen jaitziera edo *KAS Manzana* kontsumo igoera.

Nahiz eta zuk eta nik erosteketa eta jatordu osasuntsuak egin nahi izan, gaur egungo gizartearen erosteketa gutziz fidagarri bat egitea nahiko zaila zaigu.

Joan zaitezte supermerkatu batera eta hainbesteko mirariak egiten dituen soja pote bat eros ezazue eta irakurri etiketa. Bertan osagaiak daude ipinita, baina inon ipintzen al du soja miragarri hau transgenikoa denik? Ba al zenekien gaur egungo dugun soja-ren %95a transgenikoa dela? Ez al dizu "transgeniko" hitzak ezi-

negona sortzen? Ba hementxe duzue zuen bi asteroko ekokulturraren txoko xume hau, transgeniko hitzaren esanahia modu erraz batean azaltzen. Gero ez esan zutabe honek ez duenik ezertarako balio!

Joan gaitezen bada, hitz arraro honi tripak ateratzera.

Lehenik eta behin, esan, bizidun guztiak zelulez osatuta gaudela, batzuk, zelula batez soilik, adibidez bakterioak. Besteok berri, milioika zelula osatuta gaudela, adibidez: landare, animalia (zu eta ni), onddoak...

Zelula hauekako bakoitzaren barruan, gure barne-liburu bat dago. Liburu honetan dago idatzia: gure ilearen kolorea, gure altuera, gure izaeraren zatitxo bat eta gaixotasun ezberdinen aurrean dugun sentikortasuna.

Liburu honek ez dauka orrialderik, hari baten itxurako molekula luzanga bat da eta DNA deitzen da. DNA honek ere hizkiak dauzka, hizki hauekako bakoitza gene bat da. Beraz, geneak elkar-tuz DNA idazten dugu. Geneen bidez dago idatzia gure barne liburu.

Gizakiak azken hamarkadan, bizidunen gene hauek irakurtzen ikasi du, eta hau gutxi balitz, arkatx bat eta borragoma batez, gene hauek ezabatu, lekuz aldatu eta gene berriak idazten ere ikasi du, batez ere, elikagaiekin.

Azken batean, hauek dira elikagai transgeniko famatuak, beraien geneak gizakiak artifizialki eraldatuak dituzten elikagaiak. Elikagai transgeniko ugari daude, bi barazki dauzkagu, goren-

gorenean: artoa eta soja. Jada gaur egun, transgenikoa ez den arto edo sojarik ezin da merkaturatu aurkitu. Eta zergatik elikagai transgenikoak sortzeko nahi hau?

Hitz batean: negozioa.

Imajinatu Ameriketako arto saltzaile magnate batek gure Euskal Herriko kostan artoa landatu nahi duela. Baliteke gure klima hotz euritsua, Ameriketatik ekarritako arto honentzat ez izatea egokiena, eta arto honek oso ale gutxi ematea, azken finean, ez dela errentagarria. Baina imajinatu, zortedun biologo bat (lana daukana) etortzen zaiola arto magnateari eta bere artoa transgeniko bihurtzea eskaintzen diola. Arto honen geneak aldatuz, Euskal Herriko kostaldeko klima heze eta euritsuari aurre egiteko ezaugarriak emango dizkion geneak sartuko dizkio.

Transgeniko bihurtu ostean, Ameriketako artoa, Euskal kostaldean erraz hazi da eta oso errentagarria bihurtu. Noski, arto magnateari ere ez denez, dituen babarrunak eta beste barazkiak ere transgeniko bihurtzen ditu eta segi negozioan!

Baina, urteak pasata, arto magnate honen arto transgenikoa, gure Euskal Herriko kostako onddo batek eraso du eta bere produktioa jaitzi du. Gizon honek kezkatuta, pestizida bat bota du eta onddoa ezabatu du, baina pestizidak artoari ere kaltea egin dizkio. Orduan gizon honek zera pentsatu du «de dio! Pestizida honen arto kalteik ez balioke ingo!» (amerikarra izan arren, bere aito-

na tolosarra zen), eta zortedun biologoaregana doa.

Biologo zortedunak, pestizidarekiko erresistentzia sortuko dion gene bat ipintzen dio artoari eta magnateak nahi adina pestizida botako ahal du, artoari kalterik egin gabe.

Arto transgenikoa osasuntsua, itxura onekoa, ugaria eta merkea izango da.

Baina... «hemen zeok kontua», arto polit honek bere gainean eta barruan onddoaren aurkako pestizida ugari izango du, artoari ez diona kalterik egingo baina, zure gosariko zerealetan bertan egongo dena. Agian behin janda ez zaitu ezer gertatuko, baina zure bizi osoan egunero janean gero... nor daki? Nork ikertu du?

Ez dut esan nahi transgenikoak txarrak direla, ezta alarma sozialik sortu nahi, baina ez al da gure eskubidea, zer jaten dugun jakitea? Ez al luke erosten dugun elikagai bakoitzak, etiketa bat izan behar, transgenikoa den ala ez, hidroponikoa den ala ez, zein tratamendu hormonal eta pestizida bota dioten ipintzen diona? Gero, bakoitzak erabakiko du zer komeni zaion.

Eta guri komeni zaiguna da, auri monedejo batzuk jatea, jada garaia ere badator eta. Nik monedejoak lasai jaten ditut, bere kolesterola, entsaladek duten pestizidak baina osasuntsuago baita.

Zuen email-en zain egongo naiz bioaniztasunetik@hotmail.com helbidean eta zutabetxo hauei buruzko informazio gehigarria jakin nahi izanez gero, twitter eta Facebook-ean dago!

Ikasturte berriarekin martxan da Eskola Agenda 21eko proiektua

Bigarren urtez jarraian biodibertsitatearen gaia jorratuko dute; pasa den astean Tolosaldeko V. Topaketa egin zuten

Erredakzioa

Ikasturte berriarekin batera, prest daude eskualdeko ikastetxe eta udalak, Eskola Agenda 21eko proiektuari ekiteko. Eskualdeko biodibertsitatearen inguruko gaiek askorako ematen dutenez, bigarren urtez, gai berari helduko diote. Aurreko ikasturtean mahai gainean bukatu ezinik gelditu ziren ekimen, proiektu eta ideiak landuko dituzte.

Urriaren 17an, Tolosako musika eskolan, Tolosaldeko V. Topaketa egin zuten. Bertan, iaz egindako lanari jarraipena emateko konpromisoak eta udalen erantzunen errepaso egin zituzten. Ikasturtearen bukaeran Eskola Agenda 21 proiektuaren bidez aterako ondorioak plazaratzeko ekimena prestatzen ere hasi ziren. Pixkana-pixkana joango dira, baina etenaldirik gabe. Guzti hau udalen inplikaziorik gabe ezinezkoa izango litzateke: «Gure gazte eta beraien heziketan sinestun dutelako gure proiektuak toki du udalen agendatan», nabarmendu dute Tolosako Ingurumen zentroko arduradunek.



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 Iturrigoxo Jatetxea

Bi laguntzako asteburuko menua

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



www.iturrigoxojatetxea.com

2 Ostatu Hernialde Jatetxea

Bi laguntzako bazkaria edo afaria

Hernialde
Tel.: 943 65 24 96

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52



3 Tolosako babarrunak

8 poltsa



www.tolosakobabarrunak.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

4 Donostiako Aquariuma

Bi laguntzako bina sarrera



www.aquariuss.com


Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54

5 Tolosa Goxua

Bi tarta

2012ko urriaren 27an
Triangulua plazan

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 55



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte eta asteazken goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza

Irudia **Altzo****HONDAKINEN BIGARREN AZTERKETA**

Aurretik Orexan egin moduan, Tolosaldeko Zabor Mankomunitateak Altzon egin du edukiontzi berdeetan botatzen den hondakinen azterketa. As-tebetez hondakinak jaso gabe izan ondoren, as-telehenean egin zuten azterketa Altzoko fron-

toian. Zehazki, herri txiki bateko herrigunearen datuak jaso nahi dituzte oraingoan. Konpostajearen inguruko kanpaina jarri dute abian mankomunitatek eta edukiontzi berdeetan zenbat materia organiko botatzen den neurtu nahi dute. **HITZA**

‘Dantza zati bat’ ekimenean parte hartzeko deia egin dute

Bidegoianen egingo dute, larunbatean, eta dagoeneko 90 pertsona baino gehiagok eman dute izena

I. Garcia Landaa Bidegoian

Dantza zati bat ekimena egingo dute Bidegoianen larunbatean. Kultur astean *Gazta zati bat* dokumentala eman ondoren, ekimen berri horren parte hartzeko gonbitea egin du udalak, Ernio guraso elkarteak eta Kukuri kultur elkarteak herritar guztiei.

Ekimen horren helburua, bultzatzaileen esanetan, «Euskal Herriko euskal herritarrek eta munduan barrena dauden euskaldunak, abesti edo sintoni berdinarekin elkarrekin dantzan jarzea da. Metafora bat da: elkarrekin aurrera atera ditzakegun proiektuen inguruan elkarlan bat egitea».

Herrietan egiten den ekimenak jasoz, DVD bat egiteko asmoa dute *Dantza zati bat* egitasmoak. «Beste herri asko bezala, Bidegoian bertan ateratzea interesgarria dela iruditzen zaigu. Bertan, hiru minutuko sintonia batekin adin guztietako herritar guztiek

dantza simple bat egingo dugu», azaldu dute.

Larunbatean elkartuko dira, 11:00etan, Bidaniko plazan. Parte hartzaile guztiek kamiseta eta galtza beltzak edo ilunak eraman behar dituzte. Dantzari dagokionez, bi eskuak gora altxa eta hankak aurrera eta atzera mugitu behar dira.

Oraingoz 90 herritarretik gora eman dute izena. Parte hartu nahi duenak antolatzaileetako batekin harremanetan jarri behar da. Antolatzaileek azaldu dutenez, «herri guztiak egin dezakegun ekimen eder honetan parte hartzera animatzen dugu».



Satur Zabala zinegotzia eta Josefa Galartza. I.G.L.

Josefa Galartza amezketarrak 105 urte bete berri ditu

Haundikoa baserrian bizi da, eta urtebetetze berezia dela eta, Amezketa Udalak loreak eraman dizkio

I. Garcia Landaa Amezketa

Ez da erraza 100 urtera iristea eta are zailagoa hortik aurrera urteak gehitzen joatea. Bada, Josefa Galartza amezketarrak 105 urte bete berri ditu Haundikoa baserrian. Amezketa Udalak loreak eraman zizkion, Satur Zabala zinegotziaren bidez, urtebetetze berezi hori ospatzeko.

Batez ere, bere familiako kideekin eta ezagunekin komunikatzen da Josefa Galartza. Izan ere, azken urteetan gorriera handitu egin zaio eta horrek besteekin hitz egitea zailtzen dio. 1907an jaio zen Galartza eta, beraz, ia hiru mende ezagutu ditu. Bere alaba Teresa, suhia Jose eta biloba Jabierrekin bizi da Galartza. Amezketa Perutxonea baserrian jaio zen eta Haundikoa baserriara ezkondu zen.

Bizitza osoa herrian eman du, Tolosan egon zen hiru urteak izan ezik. Egundik taberna dagoen leku berean, neska eme gisa aritu zen taberna batean. «Ez zuten soldatarik, jasotzen zuten dirua eskupekotik etortzen zen», esan dute familiakoek. «Tolosako jauntxoak-eta joaten ziren bertara, eta horregatik eskupekoak ere hobegoako ziren».

Txanpainaren beldur

Galartzak garai horretako zenbait pasadizo kontatu izan dituela ekartzen dute gogora bere senideek: «Taberna hartara Pablo Uz-kudun boxeolaria ere joaten zen, eta garaipen baten ondoren, tabernako guztiak txanpaina edatera gonbidatu zituen. Bi neska-me-

ek, tartean Josefa, elkarren artean hitz egin zuten eta txanpainak egingo zien eraginaren beldur, ez zuten probatu. Gero damutu egin ziren hartutako erabakiaz. Orduan txanpaina ez zen, noski, eskura izaten».

Taberna horretara legegizonak ere joaten ziren eta Beizaman izandako hilketa bati buruzko auziaz hitz egiten zuten. «Hiltzailea harrapatu zutela esaten zuten, eta azkenean pertsona hori kartzelara eraman zuten», diote senideek Galartzak esandakoa gogorra ekarriz. «Baina benetako hiltzaileak aitortzerakoan esan zuten bera izan zela hilketa egin zuena. Hiltzailea hil ondoren, apaizak egia azaleratu zuten eta kartzelan sartutakoa libre utzi zuten».

90 urte bete arte Josefa Galartzak ez zuten bere adinari buruz ezer jakin nahi

90 urte bete zituen arte Galartzak ez zuten bere adinari buruz ezer jakin nahi izan, familiakoek esan dutenez. «Ordudanik, jende-ari galdetzen zion ea zenbat urte zituen, gero berari bueltan galde-tzeko», diote senideek. «Orain guzti arte landetxea izan da Haundikoa eta hona etortzen zirenei galdetzen zien. Hauek berari ere egiten zien galdera, eta gaztelaniaz lau aldiz hoge eta hamapiko zituela esaten zuten. Gero guri galdetzen zigituen ea egia zen hainbeste urte zituela».

Hainbeste urte izatearen sekretua galdetu izan diote Galartzari eta berak «egunero erreztatzea» erantzun izan duela diote senideek. Egundik, hilean behin etxera joaten zaie Jauna hartu dezan. Bere 105. urtebetzean ere horretarako aukera izan zuten, eta pozik jaso zuten etxean bisita.

San Joan jaietan sobratutako sagardoa dastatzeko aukera

Abaltzisketako jai batzordeak festa eguna antolatu du larunbaterako, bazkari eta guzti

I. Garcia Landaa Abaltzisketa

Festa eguna antolatu dute Abaltzisketan larunbaterako. Jai batzordearen ideia izan da San Joan

jaietan soberan geratu zen sagardoa dastatzeko aukera eskaintzea eta horretarako jarri dute martxan jai eguna. Bazkariarekin hasiko dira eguneko ekitaldiak. Parte hartzen duen bakoitzak 18 euro ordaindu behar ditu, eta izena emateko 699 938 936 telefono zenbakira deitu behar du. Nahi izanez gero, zenbaki horretan informazio gehiago jaso daiteke ere. Bazkarian ez da izango, baina, herriko festetan sobratu

zen sagardoa dastatzeko unea. Hori afarian izango da. 20:30ak aldera hasiko da dastatzea, eta janaria bakoitzak eraman beharko du etxetik. Bien tartean jokoak egiteko aukera izango dute festa egunean parte hartzen dutenak, arratsaldea giro onan pasatzeko.

Sagardo dastatzearen ondoren, Asier Unsain eta Irma Karrera trikitilarietako dantza saioa antolatu dute, egunari amaiera ere jai giroan emateko.



Tolosako Kantabriko jatetxean elkartu ziren Jon Irazu eta Xabier Zaldúa apustua ixteko asmoz, bakoitza bere kuadrillaren babesarekin. HITZA

Irazuren eta Zalduaren arteko aizkora apustua azaroaren 2an zehaztuko da

Irazuren lesioak hobera egingo balu eta apustua jokatu balitz, urtarrilaren 27an izango litzateke Tolosan

Asier Imaz Zizurkil

Jon Irazuren eta Xabier Zalduaren arteko aizkora apustua jokatu den ala ez, zizurkildarraren behatzaren bilakaerak erabakiko

du. Irazuren lesioa, ordea, ez zen apustuaren baldintzez hitz egiteko aitzakia izan, eta iragan ostiralean, apustua bera bakarrik gelditu zen airean. Arre edo so egin, azaroaren 2an erabakiko dute aizkolariek eta euren kuadrillek.

Xabier Zaldúa zumarragarrak hirugarren amaitu zuen bigarren mailako Euskal Herriko txapelketa duela hilabete eskas. Irabazlea, Jon Irazu zizurkildarra izan zen. Arantza atera nahian, Zalduak desafioa luzatu zion Irazuri.

Iragan ostiralean, Tolosako Kantabriko jatetxean elkartu ziren biak, apustua lotzeko. Zizurkildarraren behatza, ordea, oraindik ez da erabat osatu, eta martxoan jokatzeko prest agertu zen. Zalduak, aldiz, urtarrilaren 27a jarri zuen data bezala, eta hortik ez zela mugituko azaldu zuen. Gauzak horrela, azken hitza medikuek izango dute.

Dena ongi osatuz gero, apustua Tolosako zezen plazan jokatu litzateke urtarrilaren 27an. Zal-

duak hamar kanaerdiko jarriko lituzke plazan, eta Irazuk lau oinbiko. Hasieran, Zumarragakoak hogeitakanaerdiko nahi zituen, eta guztiak berak emandakoak. Zizurkilgoaren esanetan, hau abantaila handitxoa izango zen: «Egurraren ematen duenak abantaila handia dauka. Badaki nolako enborrak diren eta zein aizkorarekin nola moztu. Horri baiezkua esatea ezinezkoa zen, abantaila handiegia izango baitzen».

Mahai gainean alde bakoitzak

6.000 euro jarriko ditu, nahiz eta Zalduak hasiera batean 3.000 euro jarri nahi. Irazuk kuadrillaren babesa aipatzen du puntu honetan: «Kuadrilla gogotsu zegoen eta 12.000 euroz ere hitz egin genuen, baina azkenean, 6.000 euro jokatuko ditugu». Txapelketan Zaldua gainditu arren, Irazuk jakin badaki Zumarragako muti zaildua dela: «Kirol munduan ibili izan da beti, eta aizkora aritzearekin batera, giza probetan ere ibiltzen da. Lan luzerako gorputz ona dauka, eta puntu-puntu iritsiko da txapelketara». Lan luzeetan gustura ibiltzen dela dio zizurkildarrak, eta bere gorputza handia izanik, indarra probestu behar duela, horregatik sartu dituzte lau oinbiko. Zenbat denborako lana izango den galduta, hori enborrek esango dutela dio: «Egurrak eragin handia du horretan. 45 minutuko lana izan daiteke, edo gehiagokoa, hori aurrez esatea oso zaila da».

Euskal Herriko kanporaketa

Euskal Herriko Maila Nagusiko Aizkolaria Txapelketaren kanporaketa jokatu da urriaren 28an, igandean, Elizondoko Baztan frontoian. 12:30etik aurrera, hamabi aizkolaria ariko dira lehian, eta horietatik lau, Tolosaldeko eta Leitzaldekoak izango dira: Joseba Otaegi zizurkildarra; Unai Otaño eta Jexuxmari Mujika ibartarrak eta Jon Rekondo leiztarra. Lehen bi sailkatuek, finalerako txartela lortuko dute. Azken bi sailkatuek, aldiz, maila galduko dute.

→ Laburrak

Euskal Jaieren balantzea egingo dute hilaren 30ean

ANOETA › Euskal Jaia ospatu zen Anoetan urriaren 14an, eta festaren balorazioa egiteko, bilera egingo dute hilaren 30ean, asteartean, 18:30ean udaletxean. Udaletik herriko eragile eta herritar guztiak deitu dituzte batzarrera.

Etxebizitza babestua alokatzeko aukera

ANOETA › Anoetako Udalak, bere jabetzakoa den babes ofizialeko etxebizitza bat alokatzeko aukera jarri du. Etxebizitza Iturtulo kalean aurkitzen da, eta zozketan parte hartu nahi duenak azaroaren 12a baino lehen eman beharko du izena. Mugikortasun murriztua dutenek lehentasuna izango dutela ere esan du udalak. Informazio gehiagorako udal-txera joan behar da.

Argazki lehiaketaren gaia eta epea aldatu dute

ANOETA › Argazki lehiaketan parte hartzeko epea urriaren 29ra arte luzatu du Euskara batzordeak. *Erretratuak* gaiarekin arazoak egon direla onartu dute batzordetik, eta horren ondorioz, mota guztiak argazkiak onartuko dituzte lehiaketarako, erretratuak izan ala ez. Argazkiak bozkatzeko epea ere atzeratu egin dute, eta horretarako aukera azaroaren 5etik 16ra egongo da.

'Brave' eta 'Sua' filmak ikusteko aukera, Gurean

VILLABONA › Gurea aretoan eskualdeko herritarrek egindako *Sua* filma ikusteko aukera egongo da urriaren 28an eta 29an. Igandean pelikulako partaideak egongo dira azalpenak emateko, eta emanaldia 19:30ean hasiko da. Aurrez, 17:00etan, *Brave* filma jarriko dute. *Suaren* txanda, berriro, astelehenean etorriko da. Kasu honetan, emanaldia 21:00etan izango da.

Aire akrobazia ikastaroak hilaren 31n hasiko dira

ADUNA › Aire akrobazia ikastaroa atzeratzea erabaki dute Asvinenean, urriaren 31ra arte. Oihala, trapezioa eta uztaia gertutik ezagutzeko lehen aukera, beraz, asteazkenean izango da, eta lehen klasea doan izango da. Ohiko klaseak, asteazkenean 19:30etan hasiko dira. Izena emateko 689 79 24 69/605 41 08 80 zenbakira deitu edo helbide elektronikora idatzi behar da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



≈ 22°
≈ 17°

| | |
|-------------|-------|
| GOIZA | EURIA |
| ARRATSALDEA | EURIA |
| BEROENA | 23° |
| HOTZENA | 16° |

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak
SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

DEIALDIAK

- **Leitza.** Mikologialdiaren barruan herriko gaztetxoek marrazkiak eta era guztietako irudiak egiten ari dira eskolan. Egindako lan guztiak igandean jarriko duten erakusketan ikusi ahal izango dira, izan ere, igandean tailerrak, proiektzioak eta abar izango dira egun guztian zehar.
- **Tolosa.** Amartz Auzo elkar-teak Nikaraguaren aldeko merkatu txikia antolatu du. Ostirala bitarte, 16:00etatik 19:00etara egongo da zabalik, Amartzoko mediku gelaren ondoko aretoan.
- **Tolosa.** *Un barco cargado de...* liburuen eta dokumentalaren aurkezpena, gaur, 19:30ean, kultur etxean.

ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Jose Enrike Zeberio tolosarraren margolanak ikusi ahal dira Alegiko erretirodunen tabernan hilaren bukaera arte.
- **Orexa.** Kultur Hamabostaldiak irauten duen bitartean *Mundu batetik* izeneko argazki erakusketatik ikusi ahal da, udaltzeko ganbaran.
- **Tolosa.** Mariona Masgrauren lanak biltzen dituen *Bidaia bat txotxongiloen mundura* erakusketatik ikusi daiteke Topic zentroan. Martxoaren 10era arte egongo da zabalik.
- **Tolosa.** *Pornografia* izeneko erakusketatik azaroaren 9ra arte Aranburu jauregian. Box.A elkar-teak antolatutako erakusketatik da.
- **Tolosa.** Tolosako Aranburu jauregian Medicusmundi Gi-puzkoak antolatutako *Sexu eta ugalketa eskubideak, eskubiderik gizatiarrenak* erakusketatik ikusi ahal da azaroaren 3a arte.

Irudia Villabona



GERTUKOA EZAGUTZEKO IRTEERA

Villabonako Jesusen Bihotza ikastolako LH4. mailako ikasleak Amezketeta, Larraitz (lehen irudia) eta Altzon (bigarrena) egun pasa egin zuten pasa den astean aipatu herriak hobeto ezagutu

asmoz. Ikastolako arduradunek azaldutakoaren arabera, «primerako eguna» pasa zuten gertuko ezagutuz, izan ere, askotan kanpora joaten gara eta ez dugu gertuko nahikoa ezagutzen. HITZA

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48. Gauekoa: Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar, kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien etairtizien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu

Urriak 28 • Igandea
12:15
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Mac Croc Fuenlabrada
saskibalo partida

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.

